



MARI-MARITXU

MUSIKA: "Maritxu nora zoaz" kanta
herrikoian oinarrituta

LETRA: "Maritxu nora zoaz" kanta
herrikoietik abiatuta (Nerea Urbizu)

ABESLARIAK: Mikel Markez eta
Nerea Urbizu

MARITXU NORA ZOAZ EDER GALANT HORI?
ILARGIRA BAROLO NAHI BADUZU ETORRI
ILARGIAN ZER DAGO?
ZULOTXO TXURIAK! BOK JAUZI TA JAUZI IBILIKO GERA.

MARI MARI MARI-MARITXU

NOLA PENTSATZEN DUZU HARA IRISTEA?
APARKALEKUAN PREST DAUKAT KOHETEA.
MARITXU JOANGO NAIZ ZUREKIN BATERA
BA JARRI ESKAFANDRA TA IGOKO GERA.

MARI MARI MARI-MARITXU

HELDU INDARREZ HIRU, BI, BAT ETA ZERO.
ZERUKO BONBILLA EGONGO OTE DA BERO?
ZER OTE DA HAN GOIAN GELDITU EZKERO?
EZ ZAITEZ ARDURATU, BUELTAN GARA GERO.

MARI MARI MARI-MARITXU

HAU DA ARINTASUNA, HAU DA FLOTATZEA!
HAU DA BERE MAGIA, ZERO GRABITATEA.
MARITXU HAU PAISAIA, HAU DA ZORAMENA!
BAROLO HAU DUGU ILARGI AMANDREA.

MARI MARI MARI-MARITXU